

Miren

(Banoa... !!)

Elkartu eta Ikertze-ren arteko elkarkara



Aizpea Goenaga
Jessica Martín Da Silva







Miren

(Banoa... !!)

Idazlea

AIZPEA GOENAGA

Ilustratzailea / Maketatzailea

JESSICA MARTÍN DA SILVA





Miren naiz, 8 urte ditut, ia 9! eta...

...Motorizatuta bizi naiz.

**BIHAR, LEHEN ALDIZ, ESKOLARA
JOANGO NAIZ.**

EZ DUT GOGOKO
JENDEAK GALDETZEA
ZERGATIK NAGOEN
GURPILDUN AULKI
BATEAN

NI RE
LEHENGUSU
ENEKO FALTAN
BOTATZEN DUT

Motorizatuta bizi naiz. Bai. Zergatik? Gorpildun aulki bati esker mugitzen naizelako. Amak askotan esaten du: "eskerrak gorpildun aulkiari, bestela... ez dakit nola moldatuko ginatekeen". Beti esaten du ginatekeen, baina berez, NIK ez dakit NI nola moldatuko nintzatekeen gorpildun aulkirik ez banu.

Behin, aitarekin interneten irakurri nuen nire antzeko egoera zeukan neska baten istorioa. Urruti bizi zen, Pakistango herri txiki batean. Ezin zuen ibili eta ez zeukan gorpildun aulkirik, horregatik ezin zuen ezer egin. Bere bizitza guztia etxe barruan gertatzen zen. Gela ilun batean. Inoiz edo behin patiora ateratzen zuten, baina hantxe txokoan uzten zuten geldirik eta kitto. Interneteko bideohorretan, ikusten zen, ONGko kide batzuk gorpildun aulki bat eramaten ziotela -zaharra baino zaharragoa- baina... neska horren poza! Bere anai-arrebek gora eta behera eramaten zuten eta bera barrez eta barrez eta.... barrez lehertzen! Askotan gogoratzen dut bideo hura, batez ere, haserretzen naizenean.

**BIHAR ESKOLARA JOANGO
NAIZEN**

**LEHENDABIZIKO EGUNA
IZANGO DA... AAAAA...
ETA URDURI BAINO
URDURIAGO NAGO.**

SUPER URDURI.

KAKA EGINDAAAAA



Nire lehengusuak Eneko izena du, eta beti-beti-beti elkarrekin ibiltzen gara.

Eneko lotsatia da mundu guztiarekin, baina elkarrekin gaudenean zoro bat da, beti pailazoarena egiten ari da, eta beti barre eginarazten dit. Erdi haserre banago, berehala konturatzen da, eta beti gauza berdina esaten dit:

- Iepa, Joxepa!

Eta ez dakit zergatik, baina hori entzundakoan, umore txarra pasa egiten zait.

Eneko ni baino hiru hilabete zaharragoa da. Elkarren ondoan bizi gara, elkarrekin jolasten dugu, elkarrekin hondartzara joaten gara, elkarrekin filmak ikusten ditugu,... eta elkarrekin orduak eta orduak pasatzen ditugu. Beno, edo hobe esanda, genituen. Duela bi hilabete Ameriketara joan zen. Nire izebari lan bat atera zitzaion Kalifornian. “Bere bizitzako lana” omen zen. Jakin nuenean begietatik malkoak ateratzen zitzaizkidan, iturri batetik ura ateratzen den bezalaxe.



- **lasai, Miren, urte bat baino ez da izango** -esan zidan nire izebak.

- **Urte bat?!** -erantzun nion nik.

- **Bai, baina berehala pasatuko da.**

- **Eta zergatik ez da Eneko hemen gelditzen?** -proposatu nien.

- **Enekoari oso ondo etorriko zaio ingelese ikastea, eta**

gainera zer egingo dut nik han bakarrik, bera etortzen ez bada?

- **Izebaaaaa...**

- **Hara, zergatik ez duzue bidaia bat antolatzen eta Kaliforniara etorri bisitan?**

- **Nik ez dut hegan egin nahi.** -bota nuen amorratuta.

- **Nola ezetz?** -esan zidan izebak kilimak egiten zizkidan bitartean.

Eta horrela bada, nire lehengusu maitea, nire lagun mina, nire itzala... Ameriketara joan zen. Maleta egiten lagundu nion.

- **Eneko, plumiferoa maletan sartu** -esan nion.

- **Egiten duen beroarekin?** -erantzun zidan.

- **Orain bai, mokordo. Baina hemendik lau hilabetera San Frantziskon, azaroan, sekulako hotza egingo du** -esan nion eguraldiaren aplikazio bat erakusten nion bitartean.

- **Uf... bai, plumiferoa beharko dut. Baina... ez zait sartuko surfeatzeko jantzia- zioen, maletan dena pilatuta zanpatzen zuen bitartean. Orduan, behin dokumental batean ikusi nuenaz gogoratu nintzen!!**



Marinelek itzazontzietan ez dute leku askorik izaten eta dena ondo bilduta eramanbehar izaten dute. Dokumental horretan itzazoratzeko arropa nola biltzen zuten erakusten zuten.

- **Tira, pasa ieazadazu surfeko jantzia...** –esan nion, eta biribilean jasotzen hasi nintzen txurro bat eginez. Ondoren plumiferoarekin ere gauza bera egin nuen.

- **lehengusu... ikaragarria zara. Denetarik dakizu!**

Eta maleta itxi zuenean... elkar besarkatu genuen, estu-estu. Baina ez genuen negar egin nahi.

- **Hara! Orain nire oparia ere kabituko zaizu.**

- **Opari bat?** -Galdetu zidan sorpresaz Enekok- **Kar, kar, baina nik ekarri behar dizut oparia bidaiatik itzultzean naizenean!**

Eta aulkiaren albo batean ezkutatuta neukan nire almoada-panpina eman nion.

- **Mokoberde????!! Baina Miren, ezin duzu Mokoberde gabe gelditu!**

- **Zu gabe geldituko banaiz... Eraman ezazu zurekin eta ikus dezala mundua, eta mesedez ezagutzen duzun leku berri bakoitzetik argazkia bidali, Mokoberderena eta zurea. Ados?**

Ados!



Ospitaleko 407. gelan nengoen 7 urte bete nituenean. Asteak pasa nituen han. Eta nire urtebetetze egunean oso gogogabetuta nengoen. Arratsaldeko 4etan elako atea pittin bat ireki zen, eta panpina berde itsusi bat agertu zitzaidan atearen atzetik:

- **Kaixo. kaixo... Mokoberde naiz, eta nire "ama-laguna" izango den norbaiten bila nabil.** – esan zuen panpinak. Berez, Eneko zen. Berehala ezagutu nuen, ahotsa, aldatzen saiatzen bazen ere.

- **Bada hemen ez dago ama-lagunik** -esan nion erdi haserre- **hurrengo gelan begiratu.**

- **Ez al dago hemen Miren? Eta ez al da gaur bere urtebetetzea? Oparitxo batzuk ekarri ditut.** -esan zuen panpinaren ahotsarekin Enekok.

Eta halako batean ehunka globo sartu ziren atetik. Kolore guztietakoak. Eta Eneko, eta Mokoberde, eta nire izeba, eta ez dakit zenbat lagun gehiago sartu ziren gelara.

Kandelei putz egin, tarta jan eta opari pila jaso ondoren, Eneko eta biok bakarrik geratu ginen.

- **Ze itxusia den Mokoberde, ezta?** -Esan zidan Enekok- **Horregatik erosi dizut.**

- **Aibala, itxusia delako? Bada mila esker!** –esan nion ironiaz.

- **Bai, jostailu dendan sekulako pelutxe eta panpina ederrak zeuden baina Mokoberde, bazter batean hantxe zegoen ahaztuta, eta pentsatu nuen "begira ze jatorra, panpina da eta almodatxoak ere bada, eta inork ez du nahi". eta pentsatu nuen zuk baino hobeto inork ez zuela panpina hau ulertuko. Eta gainera... begira, begira.** -esan zidan panpina nire belarrian jarri eta Mokoberde niri hitz egiten ari balitz bezala- **"Zorte ona ematen dut".**

- **Inoiz eduki dudan panpinarik bereziena da** -esan nion.

- **Ez dauka sudurrik, baina... zertarako behar ote du sudurra panpina batek? Ez du arnasarik hartzen, ezta?** –jarraitu zuen Enekok esaten.

- **Ez dauka hankarik** –bota nuen nik panpina aztertuz.

- **Zertarako? Ez badu ibili behar. Ezta besorik ere.**

- **Zertarako? Ez badu behar.**

- **Baina badakizu zer duen** -esan zidan Enekok -**IRRIBARRE**
ERRALDOIAAAAA!!!



MIREN

Kaixo, Eneko, bihar eskolara joango naiz. lehenengo aldiz. OOOOOOOOooooo urduri nago. Zer egin behar dut inork ez igartzeko zein urduri nagoen? Zu hemen, nirekin bazeunde askoz errazagoa izango zen dena, baina... bakarrik nago, eta urduri, eta kaka egina. Badakizu zer den okerrenea? Ama ni baino urduriago dagoela! Eta aita... zer esanik ez!! Eta amona? Pufffff... lehertuko zait.

Tira, orain lotara noa... nahiz eta seguru ez dudan batere lorik egingo. Seguru ez dugula

inork lo egingo! Baina bihar denok normal-normal esnatuko gara, denok primeran lo egin bagenu bezala. Pringi batzuk gara, Eneko.

Bihar idatziko dizut, eskolan zer moduz joan zaidan kontatzeko.

Arko maite zaitu, zure lehengusu pringi-urduri-kuttunak...

Muxu

ENEKO

Miren, zer egiten duzu oraindik esna? Segi lotara bestela bihar porru eginda egongo zara?

MIREN

Eta zuk? Zer egiten duzu esna?

ENEKO

Mokoberde eta biok eskolako atarian gaude...

Hemen arratsaldea da!



Orain Eneko ez daukat ondoan, eta dena zailagoa da. Eskolako lehenengo egunean, amari esan diot ez nuela eskolara joan nahi, eta berehala erantzun dit:

- **Ikusiko duzu zeinen ondo pasako duzun, lagunak egingo dituzu... eta gero ez duzu etxera etorri nahiko.**

- **Ez duzula eskolara joan nahi???** -esan du aitak sukaldetik gosaria prestatzen ari zen bitartean- **Zer nahi duzu egun santu guztia etxe zuloan sartuta pasa? Ez! Zoaz, ikasi, ondo pasa, lagunak egin, zure lekua bilatu, eta... batez ere zoriontu izan! Tori!**

Eta aitak harritxo urdin bat jarri dit eskuan.

- **Hau zoriontasuna erosteko txanpona da** -esan dit.

- **A, bai? Eta non erosten da?** -Bota diot haserre, ume txiki bat banintz bezala tratatu naudelako- Eta bere poltsikotik beste harritxo bat atera du.

- **Nik beti eramaten dut poltsikoan, eta "gogozkontragarritasuna" sartzen bazait, harria igurtzi egiten dut. Harri hau zure bihotzarekin konektatuta dago. Bihotza ezin duzu ukitu, baina harria bai! Eta Aladinoren lanpara magikoa bezalaxe zure desioak gogoratu eta... amorratuta bazaude, buru gainean laino beltza jarri zaizulako... bada, igurtzi harria!!!.**

- **Aita, zuk uste baduzu...**

- **Txit!!! Zuk probatu!!!** -eta eskuan duen harritxoa patrikan gorde dit. Azkenean, beti bezala irribarrea atera zait eta nire aita fenomeno bat dela pentsatu dut. Oso bitxia. Oso berezia. Eta agian, horrexegatik "fenomenoa".



Irakurtzea oso gogoko dut. Asko-asko-asko...izugarri gustazen zait abenturetako liburu bat hartu eta... irakurtzea, eta umorezko istorioren bat bada, hobe!

Eskolara natorren bigarren eguna da. Baina jolastokira atera naizen lehenengo eguna. Lagunak nire inguruan ibili dira jira eta buelta. Badakit baloiaren atzetik, edo harrapaketan jolasteko irrikatan dabiltzala, baina niganako ardura sentitzen dute. Horregatik bigarren egun honetan patiora atera garenean jolastera joateko esan diet, nik lasai irakurri nahi dudala.

- **Irakurri?** -esan dute harridura aurpegia jarrita.

- **Bai, zuhaitz handi horren azpian** -asmatu dut. **Eta zuhaitzera nindoanean denak atzetik prozesioan etorri dira eta hamaika milloika esker eman ondoren, mezedez jolastera joateko eskatu diet.**

- **Miren, seguru?** -galdetu dit albondiga itxura duen Mateok. Berari futboleko jolastea ikaragarri gustatzen zaio baina gizajoa ni bezain txarra da!

- **Baaaaaieeeeeetzzzzzz!!!** -Esan diot.

- **Bale, bale...**

Azkenean bakarrik geratu eta nire kasa irakurtzen hasi naiz. Baina begirada altxatu dudana bakoitzean norbait begira neukan eta zoologikoan dagoen zomorro arraroa banintz bezala sentiarazi naute.

Iker ere etorri zait, ea ura nahi ote dudana galdetzeraz... Nire kabuz iturrira joateko gai naizela esan diot, eta gizajoa, lotsatu egin da.

- **Bai, egarri naiz** -esan diot lasaitzeko.

- **Bultzako dizut aulkia?**

- **Motorra topera jartzen badut, zu baino askoz lehenago iritviko naiz.**

- **Topera jarriko duzu?** -galdetu dit, begiak bere lekutik kanpo ateratzeko zorian.

- **Oraintxe jolastokia beteta dago, baina hurbik dagoen batean... lasterketa egingo dugu!**

Ikerrek alde egin behar zuen, dantza bat prestatu behar omen du, eta nik, zuhaitz azpian irakurtzen jarraitu dut. Halako batean, neska txiki bat hurbildu eta begira-begira gelditu zait.

- **Zer egiten duzu?** -galdetu dit.

- **Ipuin bat irakurri.**

- **Irakurriko didazu?**

- **Ipuin hau?** -galdetu diot harrituta.

- **Bai.**

- **Nola izena duzu?**

- **Nora, eta 5 urte ditut** -esan dit- **Eta zuk?**

- **Miren** -erantzun diot- 8 urte ditut. **la bederatzi.**

Horrela bada, Norari ipuina irakurtzen hasi naiz. Egia esan, ez, ez diot irakurri, ipuin berri bat asmatu diot. Aitak edo amak txikitan gauero egiten zidaten bezala.



- Hor goiko menditxo horretan, iratxo txiki bat bizi omen zen. Hain txiki txiki-txikia... zen bere gurasoek ere ez zutela askotan ikusten. Bere amona Mari *sorgina* zen, tximista baino azkarragoa. Aita, Begi-bakar, erraldoia zen. Ama, Mari Domingi beti festarik festa zebilen, bere arreba beti orrazten ari zen Erreka Mari, eta bera... munduko pertsonarik txikiena. Apurra deitzen zioten, ogi apurra baino txikiagoa zelako. Txapela gorria jaxten zuen jendeak ikus zezan.

Mariorratz eder batek eramaten zuen egunero Apurtxo eskolara, erreken gainetik. “Beherago... uretatik gertuago!”, esaten zion Mariorratzi, eta hark ia ura ikuitzen zuela fiu... fia... sekulako abiadan pozik ibiltzen ziren. Halako batean, jolastordua amaitzeko txirrinak jo du.

- **Nora, eskolara joan behar dugu.** -esan diot

- **Nik zure ipuina entzun nahi dut. Zer gertatzen zaio Apurtxori?**

- **Bihar jolastorduan kontatuko dizut zer gertatu zitzaion...**

- **Baina nik orain entzun nahi dut** -bota zidan haserre.

Nire lehen jolastordua. Ez dut nire liburua irakurri, baina oso gustura egon naiz, bai. Topatu dut jolastorduetan.



ENEKO

Eooooo... zer? Ez didazu ezer kontatu behar? Zertan zabilta? Nitaz ahaztu zara?



ENEKO

Eta zer da esku artean duzun hori?

Odisea greziar epopeia da. 24 poemaz osatutako abentura liburua. Ezagutzen den munduko lehendabiziko abentura liburua. Kristo jaio baino 8 mende lehenago Homerok idatzi zuen. Greziako Troian gerra izan zen, eta amaitu zenean, Ulises-ek Itakara, bere etxera itzuli nahi du. Abentura honetan Ulisesek bere etxera egiten duen bidaia kontatzen du. Hamar urte pasa zituen bere erreinutik kanpo, eta beste hamar urte emango ditu itzulerako bidaia egiten. Hamaika arazo eta hamaika abentura gertatuko zaizkio Ulises gizajoari, hamar urte horietan, etxera iritsi baino lehen.

Norberak bere zailtasunak ditu, nork esan du bizitzea erraza dela?

MIREN

Moooooordoooo... egunero-egunero-egunero zaitut gogoan, baina hain hain lanpetuta nabil... hainbeste kontu ditut esku artean!!!

BAP-KA-TU!!!



MIREN

Ba... eskola... eskola... eskola!
Hara, goizetan eskolara garaiz iristea... odisea ikaragarria da.
Badakizu Odisea zer den?



ENEKO

Mila esker informazioagatik.

ENEKO

lagun berriak egin dituzu? Zerbait egiten duzu jolastorduan? Tuntuna bazina bezala hitz egiten dizute?



MIREN

Egunen batean irakurriko dizut Odisea, eta Ulisesen abentura guztiak, niri ia-ia berari adina kostatzen zait goizetan esnatu eta, eskolara garaiz iristeko prestatzea. Baina poliki poliki neurria hartzen ari gara, badakizu zer egiten dugun? denbora kronometratu. Jantzi bost minutu. Gosaldu hamar minutu. Aurpegia eta hortzak garbitu: hiru minutu... Azkenean... leher eginda iristen naiz, baina garaiz!. Eta beldurra galdu diot eskolari.

MIREN

Bai. Bai. Bai.

MIREN

Bai, poliki-poliki lagunak egiten ari naiz. Normalxeago tratatzen naute. Iker, oro jatorra da, bitxia da, baina ondo moldatzen gara ez baita futbol zalea, eta ez zaio korrika ibiltzea gustatzen, egun osoa dantzan ematen du. Ane, Urdin, Ekhi eta beste lagun gehiago ere baditut. A, eta jolastorduan ume txikiago batzuei ipuinak kontatzen dizkiet.

Irakaslea jatorra da, Jaione, baina gajoak ez daki ondo zer egin behar duen nirekin. Nik beti esaten diot berdina: "normal-normal" egiteko.

MIREN

Eta gelakoei... erakutsi diet nirekin hitz egiteko eserita badaude niretzat errazagoa dela. Eta erakutsi diet aulki atzean ez eratzeko hitz egiten, ezin baitiet entzun.

Eta erakutsi diet gauza batzuetarako laguntza behar dudala, ateak zabaltzeko, lurrera erori zaidan boligrafoa jasotzeko... Baina beste kontu askotarako ez dutela nire gainean egon behar, ezta penaz begiratu behar ere.

Erakutsi diet... gauza mordoa. Eta nik ere asko ikasi dut.

Batez ere ikasi dut jendeak ez dakiela ni bezalako pertsona batekin zer egin eta nola moldatu.

ENEKO



Gaur jolastorduan, zuhaitzaren azpian jarri eta nire liburua ireki orduko, Nora hantxe etorri zait, beste bi lagunekin.

- **Kaixo Nora, zer moduz?**

- **Ondo. Eta zu?** – grazia egin dit berak hori galdetzea, eta bere lagunak aurkeztu dizkit Xabi eta Kimetz, lurrean eseri dira eta Apurtxori zer gertatu zitzaion galdetu dit.

- **Gogoratzen duzu mariorratz Apurtxoren bila nola joaten zen eskolara, ezta? Eta ibaiaren gainetik etxe aldera zihoazenean. Apurtxok beti uretara gerturatzen nola eskatzen zion: "gehiago... gehiago!"**

- **Benetan? Benetan mariorratz joaten zen eskolara bere bila?** - Galdetu zidan Xabik.

- **Baaaaaaai!!! Egunero egunero!** –erantzun zien Norak bere lagunei.

- **Ze svertea!**

- **Eta zer gertatu zitzaion?** -galdetu zuen Kimetzek.

- Bada Mariorratzek primeran egiten zuen hegan. ikaragarri azkar, ureraren gainetik milimetroetara... ziummmm... Eta halako batean, arrain batek, ahoa zabal-zabalik, salto egin zuen Apurtxo jateko asmoz, eta Apurtxo giza joak halako sustoa hartu zuen... ziunbala! Uretara erori zela liburu, txano gorri etaguzti. Mariorratzek berehala bira eman zuen Apurtxoren bila joateko. Baina arraina Apurtxo irenstera zihoan...
baina orduan... orduan...

AAAAAAAAAa
a22NNNNNN...

- **Orduan zer?** -galdetu du Xabik urduri.

- **Zer uste duzue gertatu zela?** -galdetu diet.

- **Ez dakit** -erantzun du azkar Norak- **arraiak Apurtxo jan zuen?**

- **Ezzzz... une horretan, segundo erdi horren laurdenean, tximista bat baino azkarrago Erreka-Ur azaldu zen uraren azpitik... Eta hori kontatzen ari natzairen bitartean aldean neukan txotxongilo txiki bat atera dut. Apurtxo baliitz bezala. Noraren, Xabiren eta Kimetzen aurpegiak ikustekoak ziren.**

ErrekaUr, erreka guztietako lamia da eta Apurtxo bere eskuetan hartu zuen.

- ErrekaUr, oso oso txikia naizelako. Handiagoa banintz, "normala", orduan arraia ez zen ni jatera auzartuko.

- Apurtxo... Apurtxo... Apurtxo... Arrainak ia ia jan zaitu, eta badakizu zergatik?. -galdetu zion ErrekaUrrek.

- Zer da normala izatea? Zu oso normala zara, Apurtxo, familia duzu, burua, hitz egiteko gaitasuna, barre egitekoa, egunero eguzkia ikusten duzu... Denok gara bereziak.

- Bai, baina...

- Hara, nik salbatu zaitut eta zuk lagundu behar gaituzu... utadura dela eta, arrainek ez dute jatekorik! Horregatik nire erreka garbitzea lortu behar duzu.

- Baina ni oso txikia naiz lan hori egiteko. -protesta gin zuen Apurtxok.

- Pentsamendu txikiek... pertsonak txiki bihurtzen ditu -erantzun zion ErrekaUrrek.

Momentu horretan bertan txirrinak jo du.

- **Jopelar, beti berdin!** -Protesta egin du Norak, baita Xabi eta Kimetzek ere.

- **Mese... bukatu ipuina!**

- **Bihar, bihar...** -erantzun diet.





**Bai, erdi lo... baina
hemen!!!**

ENEKO
Zer da?

Kontatuko didazu behingoz zer gertatu den?

ENEKO
zeeerrrrr?

ENEKO
ZEEERRRRRRR!

MIREN
Mokordoooooooooooo

Esnatu bada!

Gaur nitaz harro egongo zinateke.

**Bada... gaur erkolarekin piztina
joan behar genuen. Eta nik ere motxila
hartu dut, txanoa, toalla... eta...**

Bada, eskolara iriti naizenean, Jaione irakasleak esan dit ez dagoela piztina nitz arduratuko den inor, eta ezin nuela piztinara joan.



MIREN

Bai. Sutan jarri naiz eta garraisi egiteko gogoa piztu zait, baina isilik geratu naiz. Jaionek ez zekien zer esan eta isildu gabe hitz egiten hasi da, urduri: "Bai, hitz egingo dut zure gurasoekin eta eskolako arduradunarekin, irtenbide bat emango diogu, edo agian piztina garaian bilatuko dugu zuretzat zereginen bat"... Nola? Ezin dudala piztinara joan?, pentsatu dut...

MIREN

Eta halako batean, denen aurrean bota diot: "Jaione, ondo, bai, oso ondo. Piztinara joateko arazoa dagoela? Bada hoberena piztinara ez joatea!. Arrazoi osoa duzu. Bai. Joannesek batuketak egiteko arazoak dituela? Ez da hala, Joanes? Bada orduan hoberena matematikarik ez ikastea!. Aiorak asma duela? Bada etxean geratzea hoberena. Uxeri irakurtzea kostatzen zaiola, bada ez dezala irakurri. Ander berandu etortzen dela? Bada hobe ez etortzea. Mañel eta Irida haserretu direla, bada zertarako barkamena eskatu, haserretu daitezela betirako... Total... zertarako?

Zertarako eskolara etorri, zertarako lagunak egin, zertarako ikasi, zertarako lagundu..."

ENEKO

pitjjuuuuu!!

hori bota diozu?

MIREN

Hori eta... askoz gehiago. Ezin nuen isildu, Eneko!

ENEKO

Eta zer esan du berak?

ENEKO

Eta orduan, irtenbidea zein da, eskolan irakurtzen gelditzea?

MIREN

Bada larritu egin da. Eran dit, denon zaintza, eta batez ere, nire zaintza ardura handia dela, eta ezin dela nola edo hala egin.

Dakien norbaitek lagundu behar navela, eta bla... bla... bla...

MIREN

Horixe bera galdetu diot. Eta berak orduan galdetu dit: "zuk igerilekura joan nahi duzu?" Eta nik esan diot: "Bai, jakina! Gauza guztien gainetik!". Orduan, bera hasi da, arnasa sudurretik oso fuerte hartzen, urduri-urduri, eta halako batean... ja eta esan du: "tira, neronek eramango zaitut, nik ez dakit ondo igeri egiten baina kubritzen ez duen lekuan behintzat egon ahal izango dugu, ezta?" Eta orduan lkerrek esan du: "Nik ere lagunduko dizut" Eta Anderrek ere bai, eta Ekhiak eta... den-denek lagunduko zidatela esan didate. Eta tuntu bezala barrez hasi naiz, eta negarrez eta... denak besarkatuta bukatu dugu. Eta piztina joan gara. Oso-oso nekatuta nago. Ez da erraza izan. Baina egin dugu.

Eta oso pozik nago. Oso eskertuta. Eta Jaione... ikaragarria da! Badakizu zer esan didan bukatu dugunean... musu eman eta esan dit: "eskerrik asko, Miren. gaur asko ikasi dut. Batez ere ikasi dut jarrera baikorrak mundua mugitzen duela, eta ametsik, gogorik eta ahaleginik gabe ez dagoela aurrera egiterik. A, eta badakizu zer?, igeriketa ikastaro batean apuntatuko naiz".

ENEKO

Biba zu!!!!



Apurtxok ezin izan zuen gau osoan lo egin... Amona Marik igarri zion, eta horregatik ohean bere ondoan etzan zen.

-Zer gertatzen zaizu? -galdetu zion amonak.

Eta gertatutako guztia kontatu zion. Baita ErrekaUrek emandako mandatua ere.

- Zuk erraz egingo duzu hori! Egingo ez duzu bada! Hara. zure indarra non dagoen ezagutu behar duzu.

- Nire indarra? Amona, nik ez daukat indarrik, ni munduko umerik txikiena naiz. -bota zuen Apurtxok erdi negarrez.

- Ez niretzat!!! -erantzun zion azkar amonak- **zuk beti dakizu etxera poza ekartzen. Beti kontaktzen dituzu gertatu zaizkizun mila istorio xeble, beti dantzan jartzen gaituzue etxeko guztiak, ... eskolako lagunak dantzan ibaita garbitzen jartzeko zerbaite asmatuko duzu.**

Aaaaaai...

-Zer? -galdetu zion ohean eserita.

- Dantzatze gogoak etorri zaizkit. -esan zidan amonak ohetik salto eginez.- **Ufale!!!**

-OOOORAAAAAAN???? -galdetu zuen Apurtxok, baina galdera amaitu baino lehen Amona Marik hatzekin kriskitina egin aitean.

KLIK!

eta musika topera entzuten hasi zen. Amona eta Apurtxo zoro moduan hasi ziren dantzan eta Erreka Mari, eta aita eta ama... denak Apurtxoren gelan dantzan eta barrez. Azkenean, denak leher eginda, lo seko geratu ziren Apurtxoren ohean.

Hurrengo goizean Apurtxo indarberrituta esnatu zen, eta eskolara inoiz baino lehenago joan eta zuzenean irratira sartu zen. 9ak punttuan, irratiko mikrofonoa ireki eta eskola guztiarentzat, argi eta ozen, hitz egiten hasi zen:

- Nire lagun maiteok! Apurtxo naiz! Mesedez oso-oso adi entzutea eskatzen dizuet gauza oso garrantzitsu bat kontatu behar dizuet-eta...

Apurtxo hain gogotsu hasi zen hitz egiten, eskola guztia,... guzti-guztia geldi-geldirik geratu zela, Kepa idazkariak ez zuen telefonorik erantzun; Pili eta Mikel sukaldariak ez zituzten suak piztu; irakasle guztiak mutu zeuden, eskolako neska-mutil guzti guztiak sorginduta bezala irratia entzuten ari ziren.

Apurtxok sutsu kontatu zuen ErrekaUr hiltzeko zorian zegoela, eta baita errekaako arrain guztiak ere, uretan zegoen zikinkeria guztiagatik. "Gure ardura da!" bota zuen ozen Apurtxok. "Guk zikindu dugu eta guk garbitu behar dugu,... Eta bla...bla... bla... bla... bla... eta kitto!!!" Bota zuen. Denak lanean jarri zituen. Kepak udaltzainei deitu zien txalupak ekartzeko. Pili eta Mikelek suak itzalita utzi eta mundu guztiarentzat bokatak egin zituzten, eta soinketako irakasleak ibaiaren alde batetik bestera zaborra eta zikina eramateko tirolina bat eraiki zuen... sekulakoa antolatu zen! Milaka kilo plastiko eta zikinkeria atera zituzten.

Egin berezi hartan Apurtxo oso oso berandu atera zen eskolatik, eta atarian, Mariorratzen orde, pelikano handi bat zegoen bere zain. Hain nekatuta zegoen, ez zuela ezer galdetzeko indarrik.

Ur gainetik etxerako bidean zihoanean arrain guztiek saltoka agurtzen zuten. Bidearen erdian ErrekaUr azaldu zen, ristalezko edalontzi izugarri disdiratsu bat eskuetan zuela eta inoiz edan zuen urik goxoen dastatu zuen. Ura edan orduko edalontzia



Hurrengo goizean, aita, ama eta amona agurtzerakoan, konturatu zen, berari musu emateko ez zutela ohi bezala makurtu behar. Gainera atarian berriz ere, Pelikano handia zuen bere zain, eta ez Mariorratza. Ez zuen ezer galdetu baina konturatu zen handitu egin zela.. Bai... herri txiki bateko, eskola txiki bateko, mutiko txiki bat... erraldoia bihurtu zen.

**“Eta hau hala bazan,
sar dadila kalabazan
eta atera dadila Bitoriko
plazan!”**

– Esan zuen Apurtxo txotxongiloak.

Eta Nora, Iker, Kimetz eta ipurina entzutera hurbildu diren beste hiruzpalau lagun gehiago txaloka hasi dira, txirrinak jo duen arte.





ENEKO

Miren helloooo, aste osoa zugan pentsatzen daramat. Hemengo eskolan gurpildun aulkian doan neska bat dago. Eta joan den egunean eskolako bilera orokorrean hitza hartu zuen.

ENEKO

Hemen ere, gure eskolan bezala, astero bilera orokorrak egiten dira. Tira, bada, neska horrek esan zuen, oztopo arko aurkitzen zituela eskolan bere aulkiarekin ibiltzeko eta ekintzak egiteko. Eta inor ez zela horretaz jabetzen.



ENEKO

Eta mundu guztia hizketan hasi zen elkarren artean, proposamenak egiten eta... ez dizut dena kontatuko, baina azkenean, sekulakoa antolatuko dugu datorren aste bukaeran. Festa handi bat, jendeak jakin dezan inguruan zenbat oztopo dauden, nola moldatu guspildun aulki batean dagoen pertsonarekin, nola hitz egin, eta batez ere, festa bat non denok aukera berdinak izango ditugun. Bidaliko dizut

ENEKO

Zergatik ez duzu eskolan horrelako zerbitu antolatzen?

ENEKO



Ze porru esaten ari zara????
Inon ez da ezer erraza....

MIREN

Mila esker, lehengusu!!! Benetan sekulako ideia iruditzen zait.

MIREN

Nik???? Ez daukat indarrik.
Hau ez da Amerika! Han dena erraza da, baina hemen...

MIREN

lotara noa... ikaragarri nekatuta nago.

ENEKO

Miren... non zabilta? Ez didazu idazten, ez didazu deitzen... zer egiten duzu?

ENEKO



ENEKO



ENEKO

Aizu... mokordo... zer egiten duzu? Nirekin haserretu zara?

ENEKO


Eeeeeee...

MIREN

Ware
Bihotzeko
Lehengusu
Maitea!!!

MIREN

Ikusi argazki hau...



MIREN

Zuk esandakoa bete dut.

ENEKO

Zer???



MIREN

Ba... zure eskolako ideia entzun ondoren, urrengo goizean eskolara goiz samar joan nintzen, eta irratiko gelan sartu nintzen. 9etan txirrinak jo zuenean, eskola guztirako irratia piztu eta hitz egiten hasi nintzen. Baaaaaaai! Eta hasi nintzen:

“Ni ez naiz ezberdina, denok gara ezberdinak, eta gizartean bizi bagara denok elkar laguntzeko da, eta ez bakoitzak bereari bakarrik begiratzeko. Denon artean eraiki behar dugu elkarren artean bizitzeko modua.”

“Kontzientziazte” egun bat ospatzea proposatzen dizuet. Benetako berdintasuna lortzeko...



MIREN

Eneko.... ezin dizut kontatu zer gertatu zen... Ezin dut, negarrez hasten naizelako. Mundu guztia, baina den-denak "oztopo festa" ospatzeko lanean jarri ziren. Eskolako atezainak, jangelako begiraleak, irakasle guzti-guztiak, beno eta Jaione zer esanik ez!

Nora, Iker, Kimetz eta txiki guztiek pankarta bat egin zuten!!! Eta txotxongiloak ere egin dituzte, eta denak gurpildun aulki txiki batzutan eseri dituzte.


MIREN

laugarren mailakoei, hankak bi edo hiruren artean lotu eta egun osoan zehar horrela ibiltzea bururatu zaie... ikusi behar zenuen nola ibiltzen ziren!!!

Bostgarren mailakoek trikitiak ekarri eta sekulako giroa jarri dute!!! Guk lasterketa antolatu dugu, eta eskolatik udaletxeraino "oztopodun lasterketa" egin dugu, eta denek bizi izan dituzte guk egunero bizi ditugun oztopo eta zailtasunak. Denek ikusi dituzte espaloietako koxkak edo autobusera igotzeko zailtasunak edo leihatila batean informazioa eskatzeko edo... hainbeste eta hainbeste traba dira!

MIREN

Udaletxera iritsi ginen eta... alkatearekin hitz egin nahi genuela esan genuen. Eta... ezetz asmatu? Baaaaai!!! Alkatea guregana etorri zen eta badakizu zer esan zuen



ENEKO

Nola arraio nahi duzu jakitea
kontatzen ez badidazu? Eta
berehala gainera!

ENEKO



ENEKO



MIREN

Bada lasterketa hau hiri
osorako antolatuta behar
dela.

MIREN

Eneko!!!
Hor zauden??

ENEKO

Ezin dizut idatzi.

IehagususU...

negarrez ari naiz.



MIREN

Ai, ze tontolo ustela! Ni ez! Ni inoiz baino zoriontuagoa naiz, eta aitaren harriari esker... handitu egin naizela uste dut.

ENEKO

Barkatu



ENEKO

Harriari esker...

ENEKO

Handitu?



MIREN

Tira, esan nahi dut, aurrerapausu handi bat eman dugula, ez duzu uste? Eta dena zuri esker!



ENEKO

Niri esker? Nik ez dut ezer egin-eta!!! Nahiago nuke hor banego!

ENEKO

Mundiala zara, Miren!

ENEKO



MIREN

Mila eta hamaika maite zaitut!!! Eta datorren urteko "Oztopodun lasterketa"n egon behar duzu, bai ala bai.



MIREN

Ez, pertsona normala naiz. Eta ez dut borrokan bizi nahi. Bizitzaz gozatu nahi dut, eta Mokoberde bezala irrifarra ahoan dudala bizi.

MIREN







